

Osoko bilkura

Bilbon, 2013ko uztailaren 19an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Charritton, Piarres,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Lizundia, Jose Luis,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zabaleta, Patxi.

Zabaleta, Joseba, kudeatzailea eta Osa,
Erramun, idazkariordea.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Irazu «B.
Atxaga»k ahala Andres Urrutiari;

Beñat Oiartzabalek ahala Xarles Videgaini; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Ibon Sarasolak ahala Miren Azkarateri; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, uztailleko Osoko batzarrari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

1. Aurreko Osoko batzarraren (2013-06-28) batzar-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

P. Charrittonek esan du J-B. Coyosen emaztearen hiletan bera eta emaztea ere izan zirela, eta aktan hori eranstea nahiko lukeela. Ontzat eman da.

M. L. Oñederrak ekainaren 28ko Osoko Batzarrean irakurri zuen testua bilera-agiriari osorik eranstea eskatu du, ez baitago konforme paperean jaso denarekin. Horrela erabakitzen bada, A. Urrutiak eta X. Kintanak idatzirikoak ere eranstea eskatu dute.

A. Urrutiak onartzen du eranskin hori gehitzea, baina horrek orain arteko ohi-tura hausten duela aipamarratu du, ohiko sistema aldatzen delako.

J. L. Lizundiak esan du *Eusker*a agerkarian Barne jardunaldien txostenak eta argitaratu izan direla eta horixe dela biderik egokiena testu hauek argitaratzeko.

P. Goenagak aktak egiteko bi modu direla esan du a) akta zehatz amaigabeak, eta b) akta laburtua, horretan, lehenik puntua aipatuz, eta ondoren proposamena eta erabakia emanez.

A. Arejitak esan du beste erakundeetan ere aktak holakoak izaten direla, hots, labur eta objektiboak.

J. L. Lizundiak batzar-agiriko 3.1. puntua dela eta, desadostasuna agertu du. Halaber, testu bat irakurri du ondokoa dioena: «Azalpen bi egin beharra dut: Lehenik, ekaineko aktari buruzkoa da, zeren eta Idazkaritzatik bidalitako formatutik ezin baita aldaketa proposamenik idatzi edota erantsi. Orrialde osoko testu “alternatibo” bat idatzi beharko nuke eta, ez dut, horrexetarako, astirik. 18 desadostasun ditut: batzuk nik esandakoak jaso gabe, aldaketak, zehaztapenak, erratu argitzeak edo gehitzeak dira, eta ezinezkoa da idazkariaren testu hain “oparoari”, segizio zehatz egitea, word eran ere, posible izan banu, oso zaila izango zen. Beraz, edota, batzar-agiriaren 3.1 puntuaren testua, mahai gainean geroratzen da, hurrengo bilkuran onartzeko moduan, edo, bestela, batzar-agiria nire kontrako botoarekin geldituko da. Gainera, beste modu batez esanda, neurekiko aipamen zuzenak, aktak, oker bildu dituelako».

A. Urrutiak galdetu dio M. L. Oñederrari ekainean irakurririko testua eranskin gisa argitaratzea nahi duen. M. L. Oñederrak hala egin dadin nahi duela adierazi du. A. Urrutiak eta X. Kintanak ere euren testuak aktaren eranskin gisa argitaratzea eskatu dute. Ondorioz, M. L. Oñederrak irakurririkoa, bai eta A. Urrutiak eta X. Kintanak eginiko testuak, J. L. Lizundiak proposatutakoaren arabera, *Eusker*a agerkarian argitaratuko dira, Barne jardunaldietako txostenak argitaratzen direnean. Horrela argi geratuko da bakoitzak adierazi duena.

Ondoren, batzar-agiriaren testua euskaltzainek onartzen duten galdetuta, bilera-agiria ontzat eman da, J. L. Lizundiaren kontrako botoarekin.

2. J. L. Lizundia euskaltzain emeritu izatearen ondoriozko domina-hutsartea: hautagaiak bozkatzea

J. L. Lizundia, adinagatik, emeritu izatera iragan berri dela jakinarazi da. Hutsartea betetzeko bi hautagai aurkeztu dira; batetik, Itziar Laka; bestetik, Jabier Kaltzakorta.

Botazioa egin aurretik, bozketarako behar-beharrezkoa den quorumari buruz, hots, Arautegiaren eta Barne-erregelen 65. eta 68. xedapenen ondorioei buruz iritziak agertu dira. J. L. Lizundiaren iritziz, 14 boto behar dira Arautegiak eta Barne-erregelek finkaturiko gehiengo osoa eskuratzeko, beste euskaltzain batzuk ere bat datoz iritzi horrekin. Beste batzuen iritziz, ordea, 13 boto behar dira. Xedapenek diotena interpretatzeko orduan adostasunik egon ez denez gero, kontuan hartuko den irizpidea botoetara eraman da.

Emaitza honakoa izan da: gehiengo osoa eskuratzeko 14 boto izatearen alde 9 boto, 13 boto izatearen alde 13 eta 2 boto zuri. Kontuan izanik, zuzenean edo ordeztuak dauden euskaltzainak 25 eta bilduriko botoak 24 direla, botoak berriz zenbatu dira, emaitza berbera izanik. Azkenean, botoak jasotzeko erabiliriko kutxaren azpialdean beste boto bat agertu da. Ondorioz, emaitzaren inguruan zalantzarik egon ez dadin, bozketa errepikatzea eskatu da.

Bigarren bozketa horren emaitza ondorengo hau izan da: jasoriko boto kopurua 25; gehiengo osoa eskuratzeko 14 boto izatearen alde 7 boto; 13 boto izatearen alde 14 eta 4 boto zuri.

Hutsartea betetzeko egin beharreko botazioan beharrezkoa den gehiengo osoa zein den argitu ondoren, aurkezturiko bi hautagaietako bat izendatzeko bozketa egin da. Hona hemen emaitza: Jabier Kaltzakortak 16 boto; Itziar Lakak 9. Ondorioz, Arautegiak eta Barne-erregelek finkaturiko gehiengo osoa eskuratu duen Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso izendatu du Osoko bilkurak.

Izendapena egin ondoren, 12:00etan etena egitea eta ordu laurdeneko atsedenaldia hartzea erabaki da Osoko bilkuran.

12:15 direnean segida eman zaio Osoko bilkurari.

3. XVIII. Barne jardunaldietan aurkezturiko txostenei, aurkitegiari eta barne-erregelak egokitzeko proposamenei eginiko iruzkinak, oharrak zein ekarpenak aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea, hala erabakiko balitz.

Aurreko Osoko bilkuran, Barne-erregelak deituriko atalean, A. Urrutiak eginiko zenbait ekarpen eta hauei J. L. Lizundia euskaltzainak eginiko iruzkinak eztabaidatu gabe geratu zirenez gero, proposamen-egileek gaur aurkeztu dituzte.

Barne-erregeletako 16. artikuluari (Koordinazio bilerak) eginiko ekarpenak. A. Urrutiak 16. artikuluko lehenengo paragrafoaren bigarren lerroan «ahal delarik, aldiro...» gehitzea proposatu du. J. L. Lizundiak, bere aldetik, paragrafo berean «... arabera, gutxienez, hilean bi aldiz, ...» eta paragrafoaren bukaeran «bilduko dira» gehitzea proposatu du. Azkenean, 16. artikuluko lehen paragrafoa osorik ezabatzea erabaki da Osoko bilkuran.

Horren ondoren, 62. artikuluari eginiko ekarpenak aurkeztu eta eztabaidatu dira. A. Urrutiak eginiko proposamenak azkeneko Barne jardunaldietan zerrendaturiko zerbitzu guztiak gehitzen ditu, bai eta Barne-erregeletako eztabaidan zerbitzu batek izaniko izen osaketa ere (Azkue Biblioteka eta Artxiboa). J. L. Lizundiak, zerbitzuen atalean «ordezkaritzak» gehitzea proposatu du. Halaber, paragrafo honen amaieran «Lehenbiziko lau zerbitzuak erakundearen egoitzan kokatuko dira. *Jagonet* Donostiako ordezkartzan eta, Hizkuntza kalitateari buruzko zerbitzua...». J. L. Lizundiak zerbitzuak kokatzeko eginiko proposamenaren harira, A. Urrutiak dio halako kontuak ez direla gehiegi zehaztu behar, kokapen geografikoak gehiegi muga ez gaitzan. P. Salaberri ere bat dator A. Urrutiaren iritziarekin. A. Sagarnak dio gaur egun kokapen fisikoa ez dela beharrezkoa. J. Lakarrak eskatu du zerbitzuei atxikiriko langileez ez ahanzte. Azkenean, A. Urrutiak 62. artikuluari eginiko eguneraketa onartu da. Halaber, A. Urrutiak idatziriko testuari J. L. Lizundiak proposaturikoa («ordezkaritzak») gehitzea ere onartu da. Zerbitzuen kokaguneari buruz eginiko proposamena, berriz, erretiratu egin du J. L. Lizundiak.

Orain arte indarrean egon den 87. artikuluari testu bat gehitzea proposatu du A. Urrutiak, «... eskuratzeko, betiere, erakundearen ahal eta baliabide ekonomikoaren arabera» hain zuzen. J. L. Lizundiak, ostera, zera gehitzea proposatu du: «eskuratzeko, betiere, salbu onartutako Aurrekontuetan murrizketak egin beharra suertatzen bada Diruzaintza, beronek, Zuzendaritzari eta osoko bilkurari kontu emanda».

J. L. Lizundiaren oharrari erantzun dio A. Urrutiak, eta, bere ustez, Bibliotekarekin ez da zertan salbuespenik egin behar. A. Arejitak ere uste du dagoen moduan aski garbi adierazirik dagoela. Horiek horrela, J. L. Lizundiak bere ekarpena erretiratu du. Ondorioz, A. Urrutiak proposatutakoa onartu da.

92. artikulua dela eta, A. Urrutiak hiru iruzkin egin ditu; batetik, 92.2; bestetik, 92.3.an lehenago onarturiko Bibliotekari «eta Artxiboa» gehitzea; azkenik, 92.6 «Artxiboaren ibilbidea atontzeko batzordeño suntsikorra». J. L. Lizundiak azken honi egin dio oharra. Azkenean, batzordeño suntsikorrarena jasotzea beharrezkoa ez dela iritzita, azken bi ekarpenak erretiratu egin dituzte egileek.

93. artikulua dela eta, A. Urrutiak eta J. L. Lizundiak eginiko iruzkinak eta oharrak aztertu dira. J. L. Lizundiak 93.1 xedapenari eginiko gehitzea onartu da («batzordearen proposamenez eta Osoko bilkurari kontu emanez»). Halaber, 93.2an J. L. Lizundiak eginiko gehitzea ere onartu da («eta batzordea entzun ondoren»). Ondorioz, 93.1 eta 93.2 atalei egin dizkion oharrak erretiratu egin ditu A. Urrutiak. 93.3 xedapenari eginiko gehitzea onartu da, moldaketa txiki bat egin ondoren. Hona hemen: «Zuzendaria eta langile finkoak Euskaltzaindiaren langileak dira, ondorio guztietarako». J. L. Lizundiak 93.3ri eginiko gehitzea erretiratu du.

95. artikulua dela eta, A. Urrutiak eginiko ekarpena onartu da. Ondorioz, J. L. Lizundiak orain arte indarrean egon den xedapena bere horretan eginiko iruzkina erretiratu egin du.

Amaitzeko 96. artikuluari eginiko gehitzea aurkeztu du J. L. Lizundiak. Ekarpenak «Euskaltzainburua da agerkariaren zuzendaria» jasotzea proposatzen du, «Buruari beti izango da euskaltzainburua» beharrean. Onartu da.

Barne-erregelako artikuluei eginiko oharrak eta ekarpenak eztabaidatu ondoren, XVIII. Barne jardunaldietan Gramatika batzordeak aurkezturiko plangintzari aurkezturiko ondoko hiru txosten hauek jaso eta euskaltzainen artean banatu dira:

- a) Miren Azkarate euskaltzainaren gutuna, «A. Urrutia euskaltzainak Gramatika batzordeari buruz eginiko oharrak direla eta» (3.2.2.1.).
- b) Andres Urrutia Euskaltzainak egindako idazkia «Gramatika batzordeari buruzko oharrak» deritzona (3.2.2.).
- c) Pello Salaburu, Miren Azkarate, Patxi Goenaga eta Beñat Oihartzabal euskaltzainek egindako idazkia, «Gramatika batzordeaz Andres Urrutia euskaltzainak egin duen proposamenari oharrak» goiburuduna (3.2.2.2.)

Astirik ezaz, Gramatika batzordearen inguruko kontu eta egitekoak zehazteko eztabaida iraileko Osoko bilkurarako uztea erabaki da.

4. Eskuartekoak

4.1. Arabako ordezkariak lekuz aldatu da. Joseba Zabaleta kudeatzaileak azaldu du, Euskaltzaindiak Gasteizen orain arte *Círculo Vitoriano*-ren eraikinean zeuzkan bulegoak, Foru Aldundiaren erabakiz, handik kendu eta Elizbarrutiaren Seminario Zaharraren eraikinera aldatu beharko dituela. Horretarako uztailearen 31ra arteko epea eman du Diputazioak. J. L. Lizundiak protesta egin du, honezkero Diputazioak gauza bera bigarren aldiz egin duelako.

4.2. Hurrengo Batzarrak

- **Irailean:** Euskaltzaindiaren hurrengo Osoko batzarra Iruñeko udaletxean egingen da, goizeko 10:00etan.
- **Urrian:** ez da Osoko Batzarrik izanen.
- **Azaroan:** Azaroren 29an Euskaltzaindiak Osoko batzarra Zarautzen bildu eta bertan omenaldia egingo zaio *Basarri* bertsolari eta euskaltzain ohorezkoari, haren jaiotzaren ehungarren urteurrena ospatzeko. Era berean, bezperan, hilaren 28an, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeak hiri berean ageriko ekitaldia egingo du haren omenez.

5. Azken ordukoak

5.1. Frantses ministroaren erantzuna: X. Videgainek 2013ko maiatzaren 20an, Euskaltzaindiak euskara Ipar Euskal Herrian sustatzeko asmoz, Madame Aurélie Filippetti Kultura eta Komunikazio ministroari bidaliriko proposamenei erantzunez, Laurence Engel Kabinete zuzendariak uztailaren batean igorri duen gutunaren berri eman du. Gutunean Euskararen Akademiak eginiko proposamenak aztertu dituztela adierazten da.

5.2. P. Charritton-ek adierazi du Ohorezko euskaltzainak izendatzeko orduan, Jon Landaburu hizkuntzalariak kontuan hartua izan dadin. Hego Amerikan hizkuntza indigenen eremuan egin duen lan esker ga azpimarratu du. Halaber, gaineratu du 2012. urtean *Linguapax* saria eman ziotela.

5.3. Jabier Kaltzakorta euskaltzain hautatu berriaren etorrera. Bileraren bukaeran, J. Kaltzakorta jauna batzar aretora etorri da. Euskaltzainburuak bere izendapenaren berriaz batera, euskaltzain guztien izenean zorionak eta ongi etorria eman dizkio, gainerako euskaltzainek ere berretsiak. Euskaltzain hautatu berriak euskaltzainak agurtu eta guztiei eskerrak eman dizkie, bai eta izendapen horri dartzekion betebeharrak ahalik eta zintzoen betetzen ahaleginduko dela adierazi ere.

Eta besterik ez dela, Osoko bilkura amaitutzat eman da, 13:45 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria